



2013KO ABENDUAREN 6KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko abenduaren seian, arratsaldeko ordu bata eta t´erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iزارo Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko azaroaren 22an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 75 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (20.542,88 €)koa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 606 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, 2013ko azaroaren 21etik aurrera astean 13 ordutik 18 ordura, bere osasun egoeraren aldaketagatik. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24a izango da.
- 13-11-05 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea, 2013ko azaroaren 12an, heriotzagatik.
- 08-01-01 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea, 2013ko azaroaren 30etik aurrera, laguntza pertsonalagatik prestazio ekonomikoa jasotzen hasi delako.

Entitateei laguntzak.-

2013. urteko dirulaguntzak entitateei honela ematea:



ODOL EMAILEAK: 1.317 euro
GURUTZE GORRIA: 3.510 euro
GIZAKIA HELBURU: 1.100 euro
NAGUSILAN: 37,75 euro

Orobione jubilatuta eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione jubilatuta eta pentsiodun elkarteari 6.724,65 euroko dirulaguntza ematea 2013 urteko ekintzen garapenerako eta 89,00 Hitzaren harpidetzarako.

IV.- HEZKUNTZA BATZORDEKO LAGUNTZAK.-

San Benito Kooperatiba Elkarteari heziketa eta osasun arloan 2013rako hitzartutako 25.523 euroko dirulaguntza dela eta dirulaguntza honen bigarren zatia ordaintzea onartzen da, hau da, 12.761,50 euro.

V.- KOMUNIKAZIO BATZORDEKO LAGUNTZAK.-

- Udalaren 2013ko aurrekontuan Goiberri aldizkariarentzat 5.400 euroko dirulaguntza partida bat aurrikusita egonik, dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea onartzen da, hau da, 2.700 euro.
- Udalaren 2013ko aurrekontuan Goierrri Tebistarentzat 8.100 euroko dirulaguntza partida bat aurrikusita egonik, dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea onartzen da, hau da, 4.050 euro.
- Udalaren 2013ko aurrekontuan Goierrriko Hitzarentzat 8.100 euroko dirulaguntza partida bat aurrikusita egonik, dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea onartzen da, hau da, 4.050 euro.

VI.- KIROL BATZORDEKO LAGUNTZAK.-

- Juan Joxe Etxeberria Zalduari uztaileko asteburuetan Lazkaon ospatzen den "Joxe Mari Kerejetaren oroimenez" X. Pala Txapelketarako 250 euroko dirulaguntza onartzen da.
- Txindoki Atletismo taldeari "Josetxo Imazen Oroimenezko XIII. Lasterketa" -rako 700 euroko dirulaguntza onartzen da.
- Antzar Korrikalariak taldeari abenduaren 1ean Lazkaon ospatutako Eskolarteko eta federatu mailako Kros txapelketarako 475 euroko dirulaguntza ematea onartzen da.

VII.- UDALTZAINGOARENTZAT TALKIEN EROSKETA.-

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzarekin polizia-koordinazio eta lankidetzari buruzko Lankidetzaren Hitzarmenari atxikitze as-



moarekin batera, Lazkaoko Udaleko udaltzaintzat bere lanerako talkien erosketa onartzen da.

VIII.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN ARRISKU PREBENTZIORAKO ESPEDIEN-TEARI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, arrisku prebentziorako zerbitzua kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak arrisku prebentziorako zerbitzua kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko ordubi t´erdiak direnean nik, Idazkari lanetan ari naizenak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

